


# TXIKITTO

2011-02 • 118. zenbakia



Kaldereroek  
20 urte kalejiran

## ...eta kitto!

### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri, Koldo Mitxelena  
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa eta maketazioa

Maidar Aranberri eta Koldo Mitxelena.

### Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,  
Maidar Aranberri eta Koldo Mitxelena.

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



**La Sallekoak** hilabete honetan buru-belarri ari gara aratosteak prestatzen! Gure aurtengo desfilearen gaia kirolak izango da eta jada dantzak eta abestiak prestatzen ari gara, martxarako prest!

Otsailaren 16an 3. mailakoek Txokolate tailerra izan zuten eta oraindik txokolate usain goxoa jantokian kendu ezinik gabiltza!


Hilaren 25ean 6. mailakoek dantza tailer bat landu zuten. Bertan, Josu Mujika koreografoaren bisita izan zuten eta berarekin dantza bat entsaiatzeko aukera izan zuten. Hurrengo atalean argazkiak ikusteko parada izango duzue!


Otsailaren 4an, **Urkizu** ikastetxeko Haur Hezkuntzako eta 1go eta 2. mailako ikasleek Enkarni Genuaren GALTZAGORRI antzezlan ikusteko aukera izan zuten eskolako aretoan; eta egun berean, 3. eta 4. Mailakoak Santa Ageda koplak abestera irten ziren, ohitura zaharrei eusteko asmoz. Otsailaren 10ean 5. eta 6. mailako ikasleek Odol Emaileen Elkarrekin antolatutako ikastaroa izan zuten eskolan bertan, eta otsailaren 21etik 25era, euskara kanpaina berria egin genuen. Aratosteen ingurukoa izan zen: hain zuten, **JOALDUNAK** izan zen gaia. Kanpaina ongi burutu zuten taldeek opari ederra jaso zuten.



**Arrateko Andra Mariko** txikienek San Blas opilak egiten ibili ziren, eta oso gozoak irten zitzaizkien. Bigarren mailakoek esnekiekin jardun zuten, flana, gurina eta bati-doak egiten. Guzti horrekin batera Santa Ageda prestatzen ibili gara santa eskean irteteko. Oso eguraldi ona izan genuen eta oso gustora ibili ginen kantuan, auzoan zehar. Hurrengo egunean eskola zabaldtu genuen eta bertan "Ate Irekiak" eskolako jaia izan genuen eta elkarrekin ospatu genuen ikasle, guraso eta irakasleek, baita gurera etorri ziren bisitari guztiak ere. Makillajea, karaokea, informatika, karatea, erroskilak, txokolatea, taloak, palomitak eta jolas pila bat ere izan genituen.







Aurkitu letra-zopari eskalako material hauak:

B	B	A	L	I	B	U	R	U	B
U	O	E	R	R	E	G	E	L	A
L	L	R	B	K	R	A	H	J	N
U	A	T	R	S	A	D	K	B	H
A	L	D	P	A	N	T	M	G	X
K	U	Z	I	M	G	L	U	Z	E
B	M	T	M	A	M	O	H	A	H
L	A	B	U	R	U	A	M	Z	O
Z	U	O	M	A	R	G	O	A	K

Arkatsa  
Boragoma  
Bolograja  
Erregela  
Margaak  
Liburu

Ainhoa Bilbao


Mesuri sekretuak

A = ☺    B = ☼    D = ☹    E = ☹    H = ☹    I = ∞    K = ☹  
 L = 2    M = ♥    S = ~~~~~    U = ☆    G = ☹    T = ✖    Z = ☹

1. ☹ ☺ ✖ ☆ ☺
2. ~~~~~ ☺ ☹ ☆ ☺
3. ☹ ☺ ☹ ✖ ☺
4. ☺ ~~~~~ ♥ ☺ ✖ ☆ ☹ ∞ ✖ ☆ ☹ ☆

Malen. txurruka  
4. maila

Zein animalia agertzen da?



Idoia & ahidalga



Gizon bat txori dendara sartu zen eta loro elebiduna eskatu zuen. Dendariak hanka bakoitzean soka bana zuen bat erakutsi zion.

- Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu -azaldu zion saltzaileak- eta eskuinekotik tira eginez gero, katalanez.

- Aizu, eta bietatik batera tira egiten badiot? -galdetu zion bezeroak.

-Zozoa halakoa! Lurrera joango naiz mokoaz aurrera!- erantzun zion loroak.

**Imad El Kassimi**



Jaimitok kakagurea zeukan eta bide ertzean kaka egiten hasi zen.

Kamioi bat pasatu zen eta korneta jo zion: Pi- Pi! Jaimitok esan zion: Zuk Pi-pi! baina nik ka-ka!

**Ane Del Pino**



Txino batek zera esan dio gizon bati:

- Aizu, kotxe hori berria al da?

- Bai, Alfa bat da.

- Lomeo?

- Pixa egiten badiozu, belarrondokoa emango dizut!

**Imad El Kassimi**

Amama bat eta ume bat pasean doaz.

Umeak lurrean txikle bat ikusten du eta hartzera doa. Amamak esaten dio:

"Ume lurreko gauzak ez dira hartzen".

Pixkat geroago amama lurrera jausten da eta esaten dio "Ume, lagundu". Umeak erantzuten dio: "Lurreko gauzak ez dira hartzen".

**Ane Del Pino**

Neska batek mutil bati:

Zer iruditzen zaizu helduak garenean gu biok ezkontzea?

Uste dut ez dela posible. Nire familian gure artean ezkontzen gara-eta: nire ama nire aitarekin, nire amama nire aitonarekin...

**Markel Gil**

Tarzanek esaten dio arratoi bati:

- Hain txikia eta bibotearekin?

Eta arratoiak:

- Eta zu hain handia eta pardelarekin?

**Josu Bastida**



Aitona xuhurra hilzorian zegoen, eta ohetik begiak ireki eta berbetan hasten da:

- Maria, hemen zaude?
- Bai, bai, hemen nago, hemen nago.
- Andres, hemen zaude?
- Bai, hementxe nago aitona, hementxe nago.
- Xabier, hemen zaude?
- Bai, lasai aitona, hemen nago. Hemen gaude denak.
- Denak hemen zaudete?
- Bai, bai, zure ondoan, hemen gaude denak.

Eta denak hemen baldin bazaudete, zer egiten du pasilloko argiak piztuta?

**Chaimae Benslaiman**



Gizon batek ahuntza darama sokara lotuta, eta lagun batek zera galdetu dio:

Nora zoaz txerri horrekin?

Ez da txerria, ahuntza da.

Barkatu, baina ahuntzarekin ari nintzen hizketan.

**Aumaima Mansouri**

Ama, ama! Ikastolako mutilek txikle bat ematen didate zuhaitzetara igotzearen truke.

- Baina, ez al zara konturatzen kuleroak ikusteko egiten dutela?

- Bai, badakit, baina ni azkarra naiz, eta kuleroak kenduko ditut.

**Iker Unanue**

Emakume batek txakur bat zeukan.

Txakurrak "Nire Titiak" izena zuen.

Egun batean galdu egin zen, eta emakumeak galdetu zion poliziarri: - "Ikusi al duzu "Nire Titiak"? Eta poliziak erantzun: - "Ez, baina gustatuko litzaidake ikustea".

**Izaro El Allali**



## Kaldereroak Eibarren

**E**gun gutxi barru bisitatuko dute berriro gure herria Hungariatik etorritako kaldereroek. Martxoak 4, Aratoste Barixakuan izango da hori, baina bezperan hasiko dira jaiak, Eguen Zuri egunean. Zartagin eta mailu hotsez beteko dituzte Eibarko kaleak, arratsaldeko 20.00etan Urkizutik abiatuta. Baina noiztik ospatzen ditugu kaldereroak Eibarren?

Donostiako kaldereroetara joango gara lehenengo eta behin, hango aratosteetara, 1827. urtera. Alde zaharrean konpartsa mordoa elkartu zen desfilean, zein baino zein bitxiagoa: artzaiak, ijito andaluzak, lorezainak, zapatarriak, perratzaileak, tornulariak, okinak eta kalderero turkoak. Kalderero turko haiei aurrerantzean jatorri hungariarra egotzi zitzaion.

Kaldereroak Eibarren lehenengo bider 1932. eta 1935. urte bitartean kaleratu ziren. Danba kuadrilakoek osatu zuten lehen taldea, 20 gazte inguru bil-

duta. Gure herrian kaldereroek izan zuten arrakastaren ondorioz, hurrengo urteetan inguruko herrietara bisita egiteko eskaerak izan zituzten eta, horrela, Bergara, Elgoibar, Markina, Ondarrua eta Deban izan ziren.

### Azken urteak

Eibarko Klub Deportiboko Kezka dantza taldea 1991n hasi zen kaldereroen ohitura berreskuratzen. Eibarko kaldereroak ezagutu zituzten nagusiekin hitz egiteaz gain, Donostiako kaldereroen antolatzaileekin harremanetan jarri eta bertan erabiltzen ziren kanta eta musikak eskuratu zituzten. Kaldereroen doinuak kantatu orduko, nagusiek Eibarkoak propio ziren letra zatiak kantatzen zituzten. Adibidez, Donostian kantatzen da "Caldereros somos de la Hungria, que venimos a San Sebastián" eta Eibarren berriz honela: "Caldereros somos de la Hungria, que venimos en tren







especial". Letrak eta kantak ensaiatu, zartaginak eta mailuak eskuratu eta 1991ko otsailaren 10ean kaldereroak Eibarren berriz ere kaleratu ziren.

Gaur egun hainbat taldek parte hartzen dute kaldereroen desfilean: ...eta kitto! Euskara Elkarte, Lagun Taldea, Jainaga eta Agirrebeñatarren trikitixa ikasleak, Musika Eskolako soinu-joleak eta txarangak...

## ARATOSTEETAKO EGITARAUA

### Martxoak 3, Eguen Zuri

15.30: Eskoletako taldeen kalejira.

17.00: Urkizun hasita eta Untzagaraino, erraldoi eta buruhandien kalejira.

17.00: Untzagan dantzaldia Lisker taldearekin.

17.00-19.00: Untzagan tailerrak: "Karetak: ipuinetako pertsonaiak", konplementu eta makilaje tailerrak, Astixaren eskutik.

### Martxoak 4, Aratoste Barixakua

20.00: Urkizun hasita Untzagaraino Kaldereroen kalejira.

20.30: Untzagan Kaldereroen abestiak eta dantzak.

21.00: Untzagan Aratosteetako pregoia.

### Martxoak 5, Aratoste Zapatua

12.00: Aratosteetako Karpan animazioa Club Lambrettarekin.

17.00: Untzagan umeentzako Playback lehiaketa ...eta kitto!-ren eskutik.

17.00: Mozorro lehiaketa, Galiziako Etxean.

18.00: Untzagan hasita, kalejira Ustekabe fanfarrearekin.

18.30: Umeentzako diskoteka Untzagako karpan DJ Arnorekin.

19.00: Txokolate-jana Urvat-en eskutik.

20.00: Urkizutik hasita, koadrila mozorratuen kalejira.

### Martxoak 6, Aratoste Domeka

11.00: Eibarko "Usartza" Txistulari Bandaren kalejira.

12.30: Untzagan Pella lehiaketa.

13.30: Aratosteetako kartel, taberna eta pella lehiaketen sari banaketa.

17.00: "Jira ta bira... beti begira" umeentzako ikuskizuna Untzagako karpan.

### Martxoak 8, Aratoste Martitzena

17.00-18.30: Untzagan umeentzako jolasak, Astixaren eskutik.

18.30: Sardinaren entieru txikia, trikitilariekin.

18.30: Umeentzako diskoteka Untzagako karpan DJ Arnorekin.

## Urtebetetzerako sorpresa-kutxak

Zer da urtebetetze bat sorpresarik gabe? Eskulan honen bitartez urtebetetzetako ospakizunean laguntxoan artean banatzeko sorpresa-kutxak egin ahal izango dituzue. Ikusiko duzue ze aurpegi jarriko duten laguntxoak.

### Osagaiak:

Komuneko paperaren barruko kartoia  
Krepe-papera edo koloretako paperak  
Itsasgarria  
Margo ezabaezina  
Erregalorako papera

### Pausoak:

1.- Lehenengo eta behin, erabaki zein irudi mota margotuko dugun: aurpegiak, loreak, bihotzak, puntutxoak...

Papera moztu, itsasgarria igurtzi kartoiari, koloretako papera itsatsi eta margo ezabaezinarekin margotu begiak, biboteak, puntutxoak edo nahi duzuen marrazkia.

2.- Kartoia bete nahi duzuen gauzekin: karameloak, txokolateak, sorpresitak... Aurretik, baina, guzti horiek bildu erregaloko paperarekin. Kartoiaren goiko aldeari puntutxoak atera artaziekin.



## URREZKO AHATEA

**B**ehin batean Mozolo izeneko mutil bat pinaburutan joan zen basora. Bidean agure zahar-zahar batekin egin zuen topo eta Mozolok jatera gonbidatu zuen. Agureak eskerronez ahate bat oparitu zion Mozolori. Baina ez nolanahiko ahatea: urrezko lumaduna!

Etixerakoan hiru ahizpa bizi ziren ostatu batean pasatu zuen gaua. Neskatilak kuxkuxera hutsak ziren eta, Mozolo zurrungaka zegoela, poltsan zer aurkituko hasi zitzaizkion. Ahizpa nagusiak ahatea ikusi zuenean urrezko luma bati egin zion tira eta hari itsatsita geratu zen. Erdikoa nagusiari laguntzen saiatu zen: gonatik heldu eta... hura ere itsatsita. Gazteenari gauza bera gertatu zitzaion: itsatsita.

Hurrengo egunean Mozolok etxerako bideari heldu zion berriro. Eta, jakina, bere atzetik ahatea eta ahizpak zeramatzan... itsatsita.

Apaizak ikusi zituenean ederra sermoia: "Neskato lotsagabeok! Zer egingen duzue mutilaren atzetik?". Azkeneko neskari heldu zion geldiarazi nahian eta apaiza ere itsatsi.

Sakristaua agertu zen orduan. "Goazen mezetara" esanez eskua luzatu zion apaizari eta... sakristaua ere soka dantza hartan itsatsita. Eta Mozolo? Mozolo ez zen ezertaz konturatzen!

Sakristauak laguntza eskatu zion baserritar bati eta hark ere besteen atzetik joan behar, itsatsita.

Taldea erregearen etxe aurretik pasatu zen. Erregea oso kezkatuta zegoen alabak ez zuelako sekula irribarrerik egingen. Alabari irribarrea ateratzeko gai zenari sari handi bat emateko prest zegoen: alabarekin ezkontzeko baimena emango zion. Alaba, Mozolo gazteluaren aurretik pasatzen ikusita, barrezka hasi zen. Sabeleko mina ere egin zitzaion. Sabeleko mina? Hortzak ere lokatu egin zitzaizkion.

Gero bikotea ezkondu egin omen zen eta ahateak hegan egin omen zuen. Eta besteak? Bai, itsatsita zeudenak? Horiek ere hegan egin ote zuten? Itsatsita?

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



# SUKALDARI LAGUNTZAILEA

## OSAGAIAK:

350 g. oilasko-bular  
50 g. ogi-mami edo bazterrik  
gabeko 2 moldeko ogi  
50 ml. esne  
50 g. igurtzeko gazta edo 3 gazta  
txiki (kesito)  
Gatza eta piperbeltza  
Irabiatutako arrautza  
Ogi birrindua  
Oliba-olioa  
Zurezko makiltxoak



*Oilaskoa gustoko baduzue, hona hemen errezeta erraz eta gozoa. Olio beroa erabili behar denez, etxeko nagusi baten laguntzarekin egin errezeta hau.*

## PAUSOAK:

- 1.- Oilo-bularra txikitu haragia xehatzeko makinarekin. Gainontzeko osagaiak gehitu eta nahastu ondo makina berarekin.
- 2.- Gatza eta piperbeltza bota.
- 3.- Medailoiak egin (eskuak urez bustita hobeto nahasten da haragia). Moldeak ere erabil daitezke, masari forma ezberdinak emateko.
- 4.- Masa-irudiak arrautzatik eta ogi-birrindutik pasatu eta olio berotan frijitu.
- 5.- Oliba xurgatzen duen paperaren gainean utzi eta makiltxoak sartu, piruleta itxura emanez.



**Oilasko-piruletak  
gaztarekin**



## www.aquariumss.com

Web orri honetan itsasoa, bertan bizi diren animaliak, itsasogintza... eta abar ezagutu ahal izango dituzue. Bertara joatea erabakitzen baduzue, **informazioa** atalean argibide guztiak topatuko dituzue; nola iritsi, ordutegiak, tarifak... Gainera, eskolako lagunekin joanez gero, **hezkuntza** ipintzen duen atalean klik eginez gero, abantaila mordoa daudela ikusiko duzue. Baina joaterik ez baduzu edota lehenengo zer topatuko duzuen jakitea nahi baduzu, onena **bisita birtuala** dioen lekua klikatzea da, aldeztu aurretik zer dagoen ikusteko modurik onena.

Beste sekretutxo bat ere badu web orri honek. Izan ere, pantailaren behealdean **bisita temperaturak** dioten atalak topatuko dituzue. Bertan, momentuko itsasoaren egoeraren berri jasoko duzue; uraren temperatura, olatuen altuera... Aukera ezinhobea da, gure itsasoa ezagutzeko!

## www.kutxaespacio.es

Matematikak, astronomia, fisika... izen arraro eta aspergarriak direla uste duzu? Ba bisita ezazu Miramongo Teknologi Parkean dagoen museo hau eta ziur iritzi aldaturiko duzula. Web orrian, bertara nola heldu, ordutegiak, tarifak... eta abar topatu ahal izango dituzue. Baina, joan aurretik, zer ikusteko aukera dagoen jakitea nahiago baduzue, **Museoko Guneak** dioen atalean klik egiten baduzue, bertan ikusgai dagoen guztia ezagutu ahal izango duzue; behatoki astronomikoa eta planetariuma (izarrak eta planetak ondo baino hobeto ezagutzeko), energia eta natura hobeto ulertzeko aukerak, simulagailuak... Bisita birtuala egiteko aukera ere badago, horrela bertara joan barik bisita txiki bat egin ahal izango duzue. Zientzia eta teknologia ikutu eta gozatzeko gaiak direla konturatuko zarete!



## ARIES

Ez zara oso formala izan azkeneko hilabetean, eta hori ondo dakizu. Hala ere, zalantzarik ez dago ume ona zarelara. Datozen asteotarako zorteko zenbakia zuretzako 3.

## TAURUS

Normalean baino lasaiago zaude azkenaldian. Zergatik? Nagusitzen ari zaren seinale da hori eta beste modu batean hartzen dituzula gauzak. Zorteko zenbakia 6.

## GEMINIS

Inguruan lagun on mordoa duzu, hori bai zortea! Zaindu itzazu ondo lagun horiek, edozertarako ondoan izango dituzu-eta. Gaizki-ulertuetatik urrundu. 5 zenbakiak zortea emango dizu zuri.

## CANCER

Ikasturteko sasoi honetan neka-neka eginda zaudela badakit. Aste Santuko oporrak urrutik ikusten dituzu, baina ez etsi. Laster etorriko zaizu merezitako atsedena. 4 zenbakia aukeratu datozen asteetan.

## LEO

Hilabete polita duzu aurretik. Zoriontsu eta pozik sentituko zara, eta horren arrazoiak inguruan dituzun lagunetan egongo da. Datozen egunotan 7 zenbakiak zortea ekarriko dizu.

## VIRGO

Purrustaka zabilta azkenaldian eta ingurukoak aspertuta dituzu. Umorearekin hartu gauzak eta egiozu irribarre bizitzari, askoz ere zoriontsuago biziko zara-eta. 8 zenbakia da zurea.

## LIBRA

Kalean uso, etxean otso. Ondo baino hobeto datorkizu zuri esaera hori. Lagunekin irribartsu eta etxeokoen egun osoan protestaka! Eman etxekoei poztasun pixkat, merezi dute-eta. Zorteko zenbakia 2.

## SCORPIUS

Zein txintxo zabilta! Eskolan fin zabilta, lagunak maite dituzu eta eurak zu ere bai, eta etxeokentzat azukre kokkorra zara. Segi horrela eta jasoko duzu fruitua. 9 zenbakia zuretzako.

## SAGITARIUS

Jar zaitez besteen azalean. Gustatuko litzazuke lagun horri gertatzen zaiona zuri gertatzea? Ez, ezta? Ba badakizu zer egin. Zure esku dago. 1 zenbakiak emango dizu zortea zuri.

## CAPRICORNIUS

Gauean pixa egitera jaikitzerakoan etxeko argiak piztu nahi ez badituzu, linternaren bat erabili, eta etxeko zatilak jantzi. Datozen asteetan aukeratu 5 zenbakia.

## ACUARIUS

Ezusteke polita jasoko duzu laster. Aspaldian ikusi gabeko norbait gerturatuko zaizu eta poztasun handia emango dizu. Hala ere, maitemintzeko aukerarik ez dute aipatzen izarrek. 6 zenbakia aukeratu.

## PISCIS

Urteak egin badituzu edo laster egingo badituzu, ZORIONAK!! Zelan pasatzen den denbora, atzo jaio zinela ematen du-eta! Ondo pasatzeko egunak dituzu aurretik. Zenbaki bat aukeratzekotan aukeratu 4-a.

# ZURE IRITZIA... nire iritzia!

Nagusien eta umeen artean desberdintasun handiak izaten direla pentsatzen dugu, baina zer gertatuko litzateke galdera berdina egiten badiegu nagusiari eta haurrari? Horrenbesteko aldea egongo ote da?

## **Zein da eskolako ikasgairik gogokoena? Gehien gogoratzen duzuna?**

### **Virginia Sola, ama**

Letrak izan ditut beti gogoko. Historia eta horrelako ikasgaiak gehiago gustatzen zitzaizkidan eta erraztasun gehiago nuela esango nuke; Matematika eta horrelakoekin alderatuz gero, gehiago.

### **Nagore Andikoetxea, alaba**

Informatika da gehien gustatzen zaidan ikasgaia; oso ondo pasatzen dut eta, gainera, idazteko aukera gehiago izaten dut informatikan. Interneten informazioa zelan bilatu eta gero hori zelan idatzi ibiltzen gara eta oso gustoko dut. Eskuz ere idazteko ohitura badut, baina nahiago dut ordenagailua erabili.



### **Alicia Vidaurre, ama**

Matematikak nituen gogoko; ulertzeko errazagoak egiten zitzaizkidan; eta berriz, ikasi beharrekoak, buruz ikasi beharrekoak, Historia eta abar, askoz gehiago kostatzen zitzaizkidan.

### **Oihan Arana, semea**

Gimnasia; kirola egiten duzulako, baina futbola gustatzen zait bereziki. Futbol-eskolan ere banabil, astero. Lagun berriak egiteko aukera ezin hobea izaten da eta oso ondo pasatzen dut.







## Ikusgarriak

Familia berezi baten istorioa kontatzen digu liburu honek, Ikusgarrien familiarena. Gurasoetatik hasita etxeko txikienetaraino, guztiak dira bereziak, guztiak dute ahalmen berezi eta ikusgarriren bat. Ondo pasatzeko aukera ezinhobea Disney-ren liburu honen eskutik!




## Zergatik ez dauzkat begi urdinak?

Maia txiki samarra dab ere adinerako, oso beltzarana, eta ilea eta begiak oso beltzak ditu. Eta asperturik dago amaren antzik ez duela entzuteaz. Eta egia esan ez da erraza horren ama guapa edukitzea, mundu guztia liluratzeko moduko begi urdin horiekin. Horregatik dabil triste eta haserre. Baina Maiak historia oso berezia dauka kontatzeko.




## Goazen hemendik

Nick kapitaina uharte misteriotsu batera iristen da, abentura bila. Gauza arraroak eta zarata bitxiak deskubrituko ditu. Kokodriloa grr, grr zurrunka, tximinoa krok-krok kokoak kraskatzen. Zer gertatzen ote da?



## Poloetako animaliak

Esploratu zirkulu artikoa eta antartikoa, eta ezagutu izotzaren erresumako zortzi animalia harrigarri: tartean, egundoko hartz zuria, orka hiltzailea eta narbal bitxia. Ondoren, muntatu museo baterako moduko zeure erakusketa! Liburuan bertan 50 pieza aurkituko dituzue, poloetako zortzi animalia muntatzeko, eta baita kartoizko tolesgarri bat ere.



## Momia

Akaso museoa itxiko dutela entzuteak aztoramendu handia sortu du bertako bizilagunen artean. Lehoi disekatuaren laguntzaz, Egiptora itzultzea erabaki du momiak. Baina, nork adieraziko ote dio bidea?









## Azeri noblea

Onintza barru-minez dago. Egun desberdinak nahiko lituzte. Amets biziagoak. Horren bila dabilela, artzain ero bat azalduko zaio aholku xelebrika, eta inola ere espero ez zituen bi norabide kontrajarri aurkituko ditu bat-batean: bi mutil erakargarri bezain nahasgarri, argitsu bezain ilun. Bat... bestea? Erabaki guztiak, latzak.

Jone Echabe

4 maila

# IZENBURUA: Nekazeta Anai Ondartean



Etxera itzazi dira!